

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

5160

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 21ekoa, Langileriaren kudeaketa zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen hirugarren zerrenda osagarria, deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztelako, eta dagozkien lan-kontratuak formalizatzeko epea ezartzen duena.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduak (2022ko abenduaren 29ko EHAA) oinarriak onartu zituen enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua gauzatzeko, eta modu finkoan betetzeko Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko agindu horren bidez, hezkuntza-administrazioaren zerbitzuko lan-kontratuak langile finko izateko egonkortzeko salbuespenezko prozesu hauetarako deialdia egin zen:

- Sukaldaritzako kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.
- Garbiketako langileen kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.

Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2025eko martxoaren 12ko Ebazpenak argitara eman zuen prozesu horietan hautatutako pertsonen eta esleituak diren plazen behin betiko zerrenda, eta, era berean, hogeiei egun balioduneko epea ezarri zuen agiriak aurkezteko eta egiaztatzeko bete egiten direla Hezkuntza sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren 2. oinarrian adierazitako parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak.

Behin dokumentazioa aurkezteko epea amaituta eta dokumentazioa aztertuta, oinarri orokorren 12. apartatua xedatutakoaren arabera, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2025eko ekainaren 30eko Ebazpenak argitara eman zuen zein zen Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar zituzten pertsonen zerrenda, eskatutako dokumentazioa ezarritako epearen barruan aurkezteagatik (aipatutako ebazpenaren I. eranskina); era berean, argitara eman zuen zein zen, arrazoi justifikatuarekin, lortu nahi den lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala zehazten duen azterketa medikoa egin gabeko pertsonen zerrenda (ebazpen horren II. eranskina).

Ondoren, 2025eko irailaren 9ko Ebazpenaren bidez, argitara eman zen Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen lehen zerrenda osagarria, mediku-azterketa gainditzeagatik eta, beraz, deialdian eskatutako baldintzak betetzeagatik; era berean, epe bat ezarri zen Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioko lan-kontratuak formalizatzeko.

Halaber, 2025eko urriaren 17ko Ebazpenaren bidez, argitara eman zen Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria,

mediku-azterketa gainditzeagatik eta, beraz, deialdian eskatutako baldintzak betetzeagatik; era berean, epe bat ezarri zen Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioko lan-kontratuak formalizatzeko.

Agindu horren 11.4 oinarrian aurreikusitako osasun-azterketan beste pertsona batzuk (aipatutako II. eranskinean ere sartuta daudenak) ebaluatu ondoren, orain, argitara eman behar da Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioko lan-kontratuak formalizatu behar dituzten pertsonen hirugarren zerrenda osagarria, lortu nahi duten lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitzat jo dituztelako.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Argitara ematea Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez deitutako Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuetan hautatutako izangaien hirugarren zerrenda osagarria, deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztelako; era berean, epe bat ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza administrazioko lan-kontratuak formalizatzeko. Pertsonen zerrenda hori eranskinean dago.

Bigarrena.— Hautatutako pertsonak (eranskinean zerrendatuta daude) nork bere lan-kontratua sinatu beharko dute, ebazpen hau argitaratzen denetik aurrera.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, baten batek lan-kontratua sinatzen ez badu, galdu egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza administrazioko lan-kontratudun finko izateko eskubide guztiak, deialditik eratortzen direnak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 21a.

Langileriaren kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN.

ERANSKINA

Kategoria: Sukaldaritza

Txanda: Librea

NAN	Abizenak eta izena	Plaza
***8266**	Bascaran Rodríguez, María	3461/364 Deba: CEIP Luzaro HLHI

Kategoria: Garbiketako langileak

Txanda: Librea

NAN	Abizenak eta izena	Plaza
***6805**	Aberasturi Ladrera, Edurne	3460/13 Vitoria-Gasteiz: CIFP Mendizabala LHII

Kategoria: Garbiketako langileak

Txanda: Desgaitasuna

NAN	Abizenak eta izena	Plaza
***0364**	Iglesias Sánchez, María Jesús	3460/139 Amorebieta-Etxano: CIFP Zornotza LHII